

Ekofinen ustez, euroaren balioak ez du EBko ekonomiaren sendotasuna islatzen

Lisboako goi bileraren ildotik, erreformak azkartzearen alde daude hamaika ministroak

Agentziak / Brusela

Europako Batasuneko ekonomiaren aldeko defentsa sutsua egin zuten atzo EBko Ekonomia eta Finantza ministroek Bruselan. Diru bakarraren balioarekin kezkatutik azaldu ziren, eta bere gainbeherak ez duela euroaren eremuko ekonomiaren sendotasuna islatzen nabarmendu zuten egindako adierazpen bateratuan.

EUROAREN EREMUKO Ekonomia eta Finantza ministroak (Ekofin) Bruselan bildu ziren atzo politika makroekonomikoaz hitz egiteko. Euroaren kotizazioak azkenaldian izan duen beherakadak, baina, lehentasuna izan zuen, eta goizeko saioan diru bakarraren aldeko adierazpena kaleratu zuten hamaika ministroek.

«Euro-11ko ministroak, Europako Ekonomia komisarioa eta Europako Banku Zentraleko presidentea (EBZ) bat etorri dira adierazterakoan euroaren eremuko ekonomia oso sendoa dela eta enplegu asko sortzen ari dela», dio adierazpenak. Hala, euroaren egungo balioak «datu ekonomikoek adierazten duten sendotasuna» ez duela islatzen adierazi zuten.

Horren aurrean, prest azaldu ziren «sendotasun fiskalaren eta enplegu osora eta eza-gupenaren ekonomiara eramango duten erreformak azkartzeko, Lisboako goi bileran ezarritako irizpideen ildotik».

Euroaren eremuko hamaika ministroek, Ekonomiaren



Rodrigo Rato Espainiako Ekonomia ministroa hedabideen aurrean izan zen atzo Bruselan.

komisario Pedro Solbesek eta EBZko gobernadoreorde Christian Noyerrek hitzartu zuten adierazpena. Wim Duisenberg EBZren presidentearen orde izan zen Noyer bileran, presidentea Suitzan izan baitzen G-10ren bileran.

EBZren esku-hartzea ez zen aipatu

Diru bakarraren alde merkaturatuetan esku hartzeko EBZri aginduak eman zizkietenetz ez zuten jakinarazi atzo ministroek. «Esku hartzeko aukera tresna bat da. Hor dago eta erabil daiteke», azaldu zuen Joaquim Pina Moura Portugalgo ministroak.

Euroaren eremuko diru politika EBZren esku badago

ere, Maastrichteko Itunaren arabera, Finantza ministroek agindu diezaioke banku zentralari beste dibisekiko euroaren truke tasa alda dezan.

Rodrigo Rato Espainiako Ekonomia ministroa erreformen alde azaldu zen Bruselara iristerakoan. Haren iritziz, euroaren gainbeherari erantzuteko modu onena Lisboan hitzartutako erreformak bezalakoak bizkortzea da.

Euroaren balioa dolarrarekiko %25 jaitsi da 1999an kotizatzen hasi zenetik. Ekofinen atzoko adierazpenak ez zion asko lagundu euroaren kotizazioari. Izan ere, Frankfurtoko merkatuan euroa 0,8952 dolarretan kotizatu zen. Europako Banku Zen-

tralak ere 0,8952 dolarretan ezarri zuen euroaren balioa.

Bestalde, Hamar Handien —Belgika, Kanada, Alemania, Erresuma Batua, Japon, Italia, Suedia, Suitza, Frantzia eta Holanda— banku zentralerako gobernadoreak Basilean (Suitza) bildu ziren atzo, eta munduko ekonomiaren egoera «nahiko positiboa» dela ondorioztatu zuten. Ingalaterrako Bankuko gobernadore Eddie George- ren iritziz, EEBBetako igoera «espero zena baino handiagoa da. Japon igotzen ari da bere kabuz, eta euroaren mailak ez du islatzen euroaren eremuko egoera ona». Gobernadoreek ez zuten aztertu diru bakarra babesteko esku hartzeko aukera.

laburrean

■ Bi langile zauritu dira Leioan eta Txoriherrin izandako lan istripuetan

BI langile zauritu ziren atzo Bizkaian izandako bi lan ezbeharretan. Lehena gauerdian gertatu zen, Artxandako tunelean, Txoriherrin. 33 urteko F.T.A. erandiotarra lau metroko altueratik erori zen lanean ari zela. Goizeko 10:20an, beste langile bat aldamio batetik erori eta zauritua zen, Leioan. Langilea 31 urteko E.V.S. da, eta Coruña-koa da. Bestalde, *Bustillo Donosti* itsasontziko arrantzale batek eskua zauritu zuen atzo Ondarroatik 22 millertara arrantzatzen ari zela.

■ Serfin Mexikoko bankuaren adjudikazioa irabazi du BSCHk

SERFIN Mexikoko laugarren bankua adjudikatu zioten atzo BSCHri. Enkantean HSBC Erresuma Batuko taldearekin zegoen lehian. Hala, Espainiako bankuak 1.560 milioi dolarrengatik erosiko du Mexikoko (288.600 milioi pezeta). Modu horretara, Mexikoko merkatu-kuota %16 igoko du. Epe erdira, BSCHren asmoa da Mexikoko bere filial Santander Mexicano- ren barruan sartzea Serfin entitatearekin.

■ Sidenorrek 2.607 milioi pezetako mozkinak izan zituen iaz

SIDENOR taldeak 2.607 milioi pezetako mozkinak izan zituen iaz, eta 62.684 milioi pezetako fakturazioa izan zuen. Taldeak inbertsioen aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta horretarako 14.969 milioi pezetako erabiliko ditu, Basauriko altzairutegi berria eraikitzeko batik bat. Iaz 648.579 tona fabrikatu zituen, aurreko urtean baino %4 gutxiago.

■ **MARTXAN** da Espainian inoiz egin den Saltzeko Eskaintza Publikorik (SEP) handiena. Kapitalizatze asmoz ekin dio BBVak 220 milioi akzio salgai jarri eta 3.300 milioi euro biltzeko asmoari. Inbertsiogile txikiak %3ko beherapena dute erosketan.

■ **ENDESA** argindar enpresaren zuzendaritzan Caja Madrid eta La Caixa kutxen arteko eza-dostasunak daude.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •


Zaldi zuriak arratoi

Zaldi zuriak arratoi eta gurdi dotorea kalabaza bihurtu dira. Hara Burtsako Edurnezuri (Telefonica) eta Holandako KPN telekoen printzearen amodio historian gertatu dena; ezustean, gaueko hamabiak iritsi, Villalongaren asmoak bete ez eta merkaturak emandako zigor gupidagabea iritsi da: ostiralean baino %6,63 gutxiago balio

dute Telefonicaren akzioek. Ipotxak ere ez dira zigorretik aparte ibili: TPIk %4,99 eta Terrak %4,83 galdu zuten. Akzio hauen negoziatutako bolumena itzela izan zen.

Blue chip-etan BBVak %1,85 galdu zuen; BSCHk %0,63 irabazi eta Repsolek, %1,65. Gauzak horrela, Bilboko 2000 indizearen izana bere izenaren azpitik da.

Bilboko 2000 Indizea



Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEEB)	0,89520
Libra Esterlina	0,58510
100 Yen (Japonia)	0,97170

Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.566,44 (-%0,11)
Tokio (Nikkei)	18.199,96 (-%1,30)
Madril (IBEX-35)	11.304,00 (-%2,22)
Paris (CAC-40)	6.514,42 (-%0,48)
Londres (FTSE 100)	6.216,30 (-%0,36)
Frankfurt (DAX-XETRA)	7.408,09 (-%1,60)
Milan (Mibtel)	31.848 (-%0,57)

* Eguerdira arte